

Indarrean 2016ko irailetik aurrera

Haurreskolak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

www.haurreskolak.eus

Baremoa



Egindako eskaerak dauden plazak baino gehiago badira, hurrengo irizpideak erabiliko dira:

- Famili-unitatearen 2014. urteko errenta (gehieneko puntuazioa 3 puntu):**
 - Diru-sarrerak 42.000 € edo gutxiago 0,5 puntu
 - Diru-sarrerak 25.200 € edo gutxiago puntu 1
 - Diru-sarrerak 8.400 € edo gutxiago 1,5 puntu
 - Eskatzailea ez den adin txikiko seme-alaba bakoitzarengatik 0,25 puntu
- Bizilekuaren gertutasuna (gehieneko puntuazioa 5 puntu):**
 - Eskatutako haurreskolaren udalerrian izatea haurraren bizilekua 5 puntu
 - Eskatutako haurreskolaren udalerrian izatea aitaren, amaren edo lege ordezkararen lantokia 2 puntu (puntu horiek bateraezinak dira haurraren ama, aita edo lege-tutoreak eskatutako haurreskolan lan egiteagatik ematen diren puntuekin)
- Anai-arrebak haurreskolan dagoeneko matrikulatuta egotea edo amak, aita edo legezko tutoreak haurreskolan lan egitea (gehieneko puntuazioa 9 puntu):**
 - Eskatutako haurreskolan bertan anaia-arreba bat edo gehiagorekin batera egotea 9 puntu
 - Amak, aita edo legezko tutoreak haurreskolan lan egitea 7 puntu
- Familia ugariko kidea izatea (gehieneko puntuazioa 1,5 puntu):**
 - Maila orokorreko familia ugaria puntu 1
 - Maila bereziko familia ugaria 1,5 puntu
- %33 edo gehiagoko elbarritasuna (gehieneko puntuazioa 2 puntu):**
 - Haur eskatzailearena 2 puntu
 - Haren amarena, aitarena, legezko tutorearena edo anaia-arrebaren batena puntu 1
- Beste egoera adierazgarri batzuk.**

Ama, aita edo legezko tutoreen lan-egoera (gehieneko puntuazioa 2 puntu):

 - Aita, ama edo legezko tutoreak, biak, lanean aritzea 2 puntu
 - Guraso bakarreko familia bada, guraso bakarra lanean aritzea 2 puntu
 - Guraso bat lanean eta bestea langabezia egotea puntu 1
 - Bi gurasoak edo, guraso bakarreko familia bada, guraso bakar hori langabezia egotea puntu 1

Kuotak

- Familiek Haurreskola irekita egongo den 208 eguneko arreta zuzenagatik ordaindu behar duten kostua 11 hileko kuotatan zatitu egiten da, hilabete bakoitzean Haurreskola irekitzen den egun kopurua kontutan izan gabe.
- Haurreskolako hileko kuotaren kalkulua, familia unitatearen errenta estandarizatuaren arabera egingo da.

Kuota tartea	Errenta estandarizatuaren mailak	8 ordu arteko kuota	5 ordu arteko kuota	Egokitzapen hilabeteko kuota
1	≤ 10.000 €	118 €	91 €	91 €
2	>10.000 € eta <15.000 €	180 €	140 €	140 €
3	≥ 15.000 €	208 €	160 €	160 €
AURRETIAKO KUOTA		91 €		

- Errenta estandarizata, familia unitatearen 2014 ekitaldiko oinarri zergagarri orokorraren eta oinarri zergagarriaren PFEZ aurrezkiaren batura da, familia bakoitzaren baliokidetasun koefizientearekin zatituta (*1).
 - (*1) Familia bakoitzaren baliokidetasun koefizientea, hurrengo baremoaren arabera familia bakoitzari ematen zaion puntuaketen baturaren arabera eskuratzen da:
 - Bi gurasoz osatutako familia unitatearen partaide den eskatzailea: 1,0.
 - Ezkontide edo izatezko bikotea: 0,5.
 - Ezkontide edo izatezko bikoterik gabeko eskatzailea: 1,3.
 - Genero indarkeriaren biktima den eskatzailea: 1,3.
 - Familia unitatearen partaide den seme alaba bakoitza: 0,3.
 - %33 ko edo gehiagoko onaturiko elbarritasuna duen familia unitateko kideak: 0,3 gehiago.
- Kasu bakoitzean eskuduna den erakundeak behar bezala luzatutako dokumentuak egiaztatzen dituen egoerak bakarrik hartuko dira kontutan (*2).
- Izen emate epea itxi eta hileko kuotak kalkulatu ondoren, onartu eta ez-onartuen behin behineko zerrendekin batera egokitutako kuota tartea argitaratuko dira haurreskolan bertan eta www.haurreskolak.eus web orrian.
- Erreklamazio epea amaitu ondoren, onartuen behin betiko zerrendekin batera, behin betiko kuota tartea argitaratuko dira.
- Haurreskolak Partzuergoko zerbitzua erabiltzen duten familiek ezingo dute parte hartu Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura sailaren beken deialdian.
 - (*2) Familiaren 2014. urteko errentari buruzko dokumentazioa aurkeztuko ez balitz, ordutegiari dagokion kuota tarterik altuena aplikatuko da.

Berdinketa geratuz gero

3. puntu lortutako puntuazio handiena.
2. puntu lortutako puntuazio handiena.
5. puntu lortutako puntuazio handiena.
4. puntu lortutako puntuazio handiena.
1. puntu lortutako puntuazio handiena (Zerga-oinarrien batura).
- Alfabetikoki ordenatuta berdinketa hauste hizkiaren bidez.

Izena emateko aldiak

Maiatzaren 2tik 11ra	Irailean, urrian edo azaroan hasteko.
Urriaren 3tik 10era	Abenduan, urtarrilean edo otsailean hasteko.
Urtarrilaren 9tik 13ra	Martxoan, apirilean, maiatzean edo ekainean hasteko.

Dagokion adin tartean plaza hutsak badaude eta berehala hasteko bada:

- Haurreskolan betetako plaza-kopurua %75koa edo txikiagoa bada, izena emateko epea etengabe izango da irekita.

- Haurreskolan betetako plaza-kopurua %75a baino handiagoa bada, goian adierazitako epeak beteko dira.

Onartze arautegian eta kuoten arautegian zehaztutako irizpideak eta epeak jarraituko dira:
www.haurreskolak.eus/Informazio
 orokorra/Gurasoak atalean, nahiz haurreskoletan ikusgai.

Zer da Haurreskolak?

Haurreskolak Partzuergoari atxikitzeko Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien arteko hitzarmenetatik sortzen diren 0 eta 2 urte bitarteko haur-eskola publikoak dira, eta haien helburu nagusia familiei hezkuntza eta laguntza-zerbitzua ematea da, 0 urtetik 2 urtera bitarteko haurren zainketa osoa eta hezkuntza kontuan hartuko dituen, haurren gaitasun fisiko, afektibo, sozial eta intelektual guztiak behar bezala garatzeko: Haurren hezkuntza integrala garatzea, hezkuntza prebentiboa eta orekatzailea sustatzea, hezkuntza globala sustatzea, hezkuntza sortzailea programatzea eta familiei hezkuntza paraleloa eskaintzea.

Onarpen eta Barematzio irizpideak

- Ezin da jaiotze gabe dauden haurren izena eman haurreskolari.
- Haurreskolari hasi ahal izateko haurrek 16 aste beteta izango dituzte.
- Ez dira plazak gordeko.
- Ez da atzerapenik onartuko izen-emateko eskaeran adierazitako hasiera-datan.
- Izen ematearekin batera ezinbestekoa da aurreitako kuota ordaintzearen ziurtagiria aurkeztea, zeina 91€koa den. Ziurtagiri hau dagokion izen emate epean aurkezten ez bada, izen ematea ez da onartuko. Haurra hautagaien zerrendan (itxaron zerrendan) geratzen bada, ordaindutako zenbatekoa itzuliko da. Izen emate orrian adierazitako haurreskolaren batean plaza esleitzen bada, ez da ordaindutako zenbatekoa itzuliko salbuespenak izan ezik.
- Bajan emandako haurrek Haurreskolak Partzuergoan berriro izena eman nahi badute 3 hilabete edo gutxiagoko epean izen-ematea onartuko zaie, baldin eta banku-transferentziaren bidez hilabete horien ordainketa egiten badute, salbuespenak izan ezik.
- Bajak ondorio ekonomikoak izango ditu baja egunaren ondoko hilabetetik aurrera.
- Eskatzaile bakoitzak lehen aukera gisa eskatutako haurreskolari aurkeztuko du eskaera. Eskaerak aurkezteko epe berean haurreskola batean baino gehiagotan eskaera eginez gero eskatzaileak aukera-eskubideak galduko ditu.
- Kasu bakoitzean eskumena duten erakundeek emandako agirien bidez egiaztatutako egoerak besterik ez dira baloratuko.
- Izena emateko epea itxi eta eskaerak barematu ondoren, onartutako izen ematearen eta ez onartutako izen ematearen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, puntuazioaren arabera sailkatuta haurreskolari bertan eta www.haurreskolak.eus web orrian.
- Erreklamazio-epea amaitu ostean onartutako haurren behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Tipologia

Gelak	Haurren gehieneko kopurua
0 urtekoen gelak	8
Urte 1eko gelak	13
0tik urte 1era bitarteko taldekatzea	10

- Hezitzaile bat lanaldi osoarekin eta beste bat lanaldi erdiarekin kontratatuko da gela bakoitzeko, gelak lau haur besterik ez duenean izan ezik, kasu honetan hezitzaile bakarra kontratatuko da.
- Hiru haur baino gutxiagorekin ez da haurreskola zabalduko.

Jatorriak

- Hezitzaileek emango diete jaten haurrei.
- Familia bakoitzak aukeratuko du, janaria etxetik eraman nahi duen, edo catering-zerbitzua erabili nahi duen, betiere catering-zerbitzu hori bideragarria denean (batez ere, janari kopuruari eta instalazio egokiei dagokienez).
- Catering-zerbitzua erabiliz gero, zerbitzu horren kudeaketa familiek egingo dute. Nolanahi ere, catering-zerbitzu horren kostua ez da hileko kuotan sartzen.

Ordutegia eta egutegia

Sartu	Irten
7:30etik 9:30era	11:30etik 11:45etara
11:30etik 11:45etara	12:45etik 13:00etara
12:45etik 13:00etara	15:00etatik aurrera
15:00etatik aurrera	

Bazkaria: 11:45etik 12:45era
Siesta: 13:00etatik 15:00etara
Askaria: 15:30etik 16:30era

Haurreskolari irailtik uztaiera bitartean eskainiko dute zerbitzua, bi hilabete horiek barne. Haurreskolako-egutegia familia guztiei emango zaie ikasturte hasieran, eta bertan adieraziko dira haurreskolari haurrak hartuko dituen egunak, baita oporraldiak ere. Haurreskola bakoitzak familien beharren arabera zehaztuko du ikasturteko ordutegia, ondorengo irizpideetan oinarrituz:

- Haurreskola 7:30etik 17:00etara egon ahal izango da zabalik, eta 18:30ak arte luza daiteke gutxienez 3 haur batera egonez gero.
- Haurrak ezin izango dira egunero 8 ordu baino gehiago haurreskolari egon.
- Haurreskola batean 4 haur baino ez badira ez da 7 ordu baino gehiago irekiko.
- Haurreskolari Partzuergoan lehen aldiz sartzen den haur orok egokitze-epea bete beharko du.